

PROIEKTUAREN IZENA: IKIGAI

BALOREZKOA PROPOSAMENA

- Gure proiektuak, kultur aniztasuna piztea eta artista ezezagun eta txikiak ezagutzera eramatea du helburu. Herritarrei, artista hauek erakustez gaindi, emanaldi / erakusketa desberdinak eskainiko zaizkie.
- Hilabetero hainbat emanaldi / erakusketa eskainiko ditugu, hilabete horretan, bi astero egon diren 5 artistak, gurekin kontaktatuko dute, edo guk artistaren batenganako interesa edukiz gero, guk ere berarekin kontaktatuko dugu.
- Bestetik, jatorrizko lokala Donostian kokatuko denez, edozein hiritarrentzat eskuragarri egongo da, inspirazioa nahi duen ororentzat. Lokalean, hilabeteroko emanaldia/erakusketa emateaz gaindi, hilabetean zehar erakusgai egon diren artisten informazioaren ondoan (bi astero aldatuko dira artistak), beraien lanak salgai egongo dira, beraien lana ikusteko edo probatzeko adibideren bat (hainbat artelan, musika entzuteko entzungailuren bat, idatziriko pusketa bat, antzerkiren bateko bideoa)(azken finean, artista bakoitzak erabakirikoa) baita hilabete hartan antolatuko den emanaldiaren / erakusketaren sarrerak ere. Emanaldia(k) / Erakusketa (k), artista desberdinen batura(k) izango da/dira (Adib. hiru musikariren kontzertua, bi margolari eta beste bi argazkigileren erakusketa).
- Asteartetik larunbatera irekita egongo da lokala, 3retatik 9tara egun normal batean, emanaldi/erakusketa egunetan, luzatu egingo da, eta emanaldi edo erakusketaren arabera erabakiko da eguna, baina beti asteburuan.
- Gure proiektuaren balio kuantitatiboa, prezioari dagokionez adibidez, edonorentzat eskuragarria dela izango litzateke. Kualitatiboki, diseinu politeko lokala, erakargarria, emanaldi/erakusketa desberdinak eskainiko dituena.
- Arte esparru desberdinak batzen dituen zerbitzua izateaz gain, emanaldi/erakusketa asko eskaini ditzakegu lokal bertan, eta artista ezezagun horiei bultzada bat emango diegu bai ekonomikoki baita artistikoki ere. Bezeroak guri ordaintzeko prest egongo dira, eskaintzen ditugun zerbitzuak kalitatezkoak izateaz gain, ez dagoelako antzerakorik gure eremuan. Horregatik guztiagatik bereizten gaitu beste antzerako proiektuekiko.
- Lehiakideengatik hurrengoek bereiz gaitzakete: berritasuna, orain arte ez delako horrelako proiekturik sortu. Eskuragarritasuna, produktuen eta artisten inguruko informazioa jasotzeaz gain, bertan, eskaintzen dituzten artelan edo zerbitzuak eskuragarri izango direlako. Bertan erosi ahal izango dira.